

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**136. zenbakia****Data 2008-07-16****23266 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****EUSKARAREN UDAL PATRONATUA-DONOSTIA****Donostiako euskaltegiatarako dirulaguntzak (2008).****DONOSTIAKO UDALA****Donostia Hiriko Euskararen Udal Patronatua***Donostiako euskaltegienezako diru laguntzak 2008.***AZALPENA**

Euskararen Udal Patronatuak bere egiteko eta helburuen barne hartzen du Donostiako gizarte arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzeko tresna izatea. Horrela, 2001eko apirilaren 23an onartu zuen Euskararen Udal Patronatuko Gobernu Kontseiluak «Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra», Donostian euskararen berreskurapen osoa lortzeko tresna gisa. Aipatu planaren helburu estrategikoetako bat da helduen euskalduntze eta alfabetatzea indartzea. Besteak beste, euskalduntze-alfabetatze alorrean aurrera egiteko euskaltegien egitasmoak laguntzea aurreikusten da. Gauzak horrela, euskaltegien jardunak duen interes publiko berezia kontuan hartuz, deialdi honen bitartez, Euskararen Udal Patronatuak Donostiako euskaltegien jarduna diruz laguntzeko arauak finkatu ditu.

I. XEDEA*1. artikulua.*

Deialdi honen xedea da Donostiako euskaltegi pribatu homologatuen egitasmoak garatzeko diru laguntzak arautzea.

2. artikulua. Eskumena duen organoa.

Deialdia Euskararen Udal Patronatuko Gobernu Kontseiluak onartuko du eta deialdiaren zabalpena eta argitalpena bermatuko du.

3. artikulua. Araudia.

Laguntzen emakidak nahiz diru laguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta diru laguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera xedatuko dira.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gaietarako azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Legea (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*. 2003-11-18) hartuko da oinarri.

II. ONURADUNAK*4. artikulua.*

Diru laguntza HABEren Erregistroan izen emanda dauden Donostiako euskaltegi pribatu homologatuek eska dezakete.

5. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak.

Euskalduntze eta alfabetatze prozesuaren ikastaro arruntak HABEk laguntzen dituzenez, ikastaro hauen osagarri izan daitezkeen egitasmoak lagunduko dira. Hain zuzen ere, informazioa, motibazioa eta sentimenduzko lantzen dituzten egitasmoak edota, ezagupenetik erabilerarako jauzia egite aldera, erabilera sustatzerantz eta indartzera bideratutako egitasmoak lagunduko dira, beti ere EBPNeke nahiz «Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorreko» helburuekin bat etortzen badira. Egitasmoak 2008-2009 ikasturtearen barruan eta Donostian garatuko dira.

III. ESKABIDEAK*6. artikulua.*

Eskabide orria Euskararen Udal Patronatuko bulegoan nahiz web orrian eskura daiteke. Diru laguntza eskatzeko honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Eskaera orria (I. eranskina).

b) Eskaera egiten duen euskaltegiaren arduradunaren NANaren fotokopia.

c) Egitasmoaren jatorrizko txostena; bertan, besteak beste, honako hauek adieraziko dira: Egitasmoaren zergatia eta lortu nahi diren helburuak; eragin esparrua eta onuradunak; metodologia; egitasmoaren ekintza nagusiak eta gauzatze data; egitasmoa gauzatzeko baliabideak (azpiegitura, giza baliabideak, baliabide tekniko eta materialak); aurrekontua (aurreikusitako gastuak, egitasmoa finantzatzeko dituen diru sarrerak, beste erakundeei eskatutako diru kopurua eta Euskararen Udal Patronatuari eskatutako kopurua); eta egitasmoa ebaluatzeko jarraipen sistema eta adierazleak (II. eranskina).

d) Beste erakundeei egindako diru laguntza eskaerak edo dagoeneko onartutakoak zehazten dituen adierazpena (III. eranskina).

e) Zerga ordainkizunetan eta Gizarte Segurantzaren aurrean eskatzailea egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak.

Eskatzaileak interesgarri tzat jotzen duen edozein dokumentu aurkeztu ahal izango du, aurrekoen osagarri.

7. artikulua. Eskabideak aurkeztea.

Eskabide orria beteta eta gainerako dokumentazioa Euskararen Udal Patronatuan aurkeztu ahal izango dira: Konstituzio plaza 2-behean, astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 bitartean.

Eskabideak 2008ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Ezarritako epea betetzeari dagokionez, ez da inolako salbuespenik egingo.

V. PROZEDURA

8. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hutsak konpon ditzaten. Epea amaitu eta akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utzi dutela joko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

9. artikulua. Diru laguntzak esleitzeko irizpideak.

Eskabideei buruzko ebazpen-proposamena landu eta laguntzak finkatzeko orduan, honako irizpideak eta balioak hartuko dira kontuan:

1. Egitasmoaren kalitatea: Helburuak, bideragarritasuna, izaera berritzailea, diseinuaren egokitasuna, metodologia, baliabideen antolaketa, egitasmoaren zabalkunde-lanak, ebaluazio eta jarraipen sistema. 0-50 puntu bitartean.

2. Eragin eremua eta onuradunak (jasotzaile mota, jasotzaile kopurua, zabalkunde). Guztien artean, honako gizarte-talde eta eragin-eremuak lehenetsiko dira: 12-16 urte bitarteko gazteak, etorkinak, familia, lan mundua, administrazioa eta teknologia berriak. 0-25 puntu bitartean.

3. Hedapen geografikoa. Egitasmoaren hedapenari dagokionez, lehentasuna izango dute hedapen zabalekoak direnek. 0-15 puntu bitartean.

4. Beste erakunde, entitate, herritar eta gainerako gizarte eragileekiko elkarlana eta inplikazio maila. 0-5 puntu bitartean.

5. Erakundearen berezko finantzaketa maila. 0-5 puntu bitartean.

10. artikulua. Diru laguntzaren zenbatekoa.

Egitasmo bakoitzari dagokion diru laguntza finkatzeko orduan gastu-aurrekontua hartuko da abiapuntutzat. Egitasmo bakoitzari emandako puntuazioak gastu-aurrekontuaren estalpen indizea zehaztuko du. Edonola ere, diru laguntzaren zenbatekoa gehienez ere egitasmoaren kostuaren %50a izango da.

Diru laguntza guztien baturak deialdiaren diru-baliabideen muga gainditzen badu, egitasmo bakoitzari dagokion kopurua hainbanaketa bidez finkatuko da.

11. artikulua. Beste diru laguntzekin bateragarritasuna.

Euskararen Udal Patronatuak emandako diru laguntzak, berak bakarrik edo beste diru laguntza batzuekin batera, ezin izango du inola ere erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua gainditu.

12. artikulua. Esleipen-prozedura.

1. Izapidegileak ofizioz erabakiaren proposamena landu ahal izateko, aurkeztutako datuak aztertze, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezko ikusten dituen jarduerak egin ahal izango ditu. Egoki iriztitako txostenak eskatu ahal izango ditu, horretarako hamar eguneko epean emanez, txostena egiteko epea laburragoa edota luzeagoa behar denean izan ezik; azken honetan epea bi hilabetekoa izango da, gehienez.

2. Izapidegileak eskaerak baloratu ondoren, horretarako eratu den Balorazio Batzordeak txostena egingo du. Balorazio Batzordea Euskararen Udal Patronatuko zuzendariak eta hizkuntza normalkuntzarako bi

teknikarik osatuko dute.

3. Espedientearen eta Balorazio Batzordearen txostenaren argitan izapidegileak behin-behineko erabakiaren proposamena egingo du, behar den moduan arrazoitua. Ondoren, interesatuei jakinaraziko zaie eta egoki irizitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.

4. Izapide hau saihestu ahal izango da, prozeduran pertsona interesatuek aurkeztutako egintza edo alegazio eta probak baino ez daudenean, edo horiek baino kontuan hartzen ez direnean. Kasu honetan ebazpena behin betikoa izango da.

5. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko erabakiaren proposamena egingo da; bertan emakiden onuradunen zerrenda, egitasmoen ebaluaketa eta horretarako kontuan hartutako irizpideak zehaztuko dira.

6. Espedienteari izapidegilearen txostena erantsiko zaio, eta bertan eskura duen informazioaren arabera, diru laguntzen onuradunek diru laguntza jasotzeko beharrezko baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko da.

13. artikulua. Erabakia.

1. Behin betiko erabakia onetsi ondoren, Euskararen Udal Patronatuaren Gobernu Kontseiluak jardunbidea ebatziko du ziodun ebazpen bidez, eta jardunbidean erabakiaren funtsak adieraziko dira, oinarrietan ezarritakoarekin bat.

2. Erabakian berariaz adieraziko dira ezetsi tako eskabideak.

3. Behin betiko erabakia hartzeko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez. Aipatu epea amaituta erabakirik jakinarazi ez bada, eskatutakoa ezetsizat joko da.

4. Erabakia administrazio prozeduraren gaineko legearen arabera jakinaraziko da.

5. Erabakian diru laguntzaren zenbatekoa, ordainketa-era, zurrizko modua eta oinarrietan jasotako baldintzak eta eskatutako betekizunak zehaztuko dira.

6. Erabakiak baliogabetzeko arrazoiak administrazio prozeduraren legerian jasotakoak izango dira. Arrazoietakoa bat gertatuz gero, Euskararen Udal Patronatuaren Gobernu Kontseiluak ofizios berraztertze erabakia hartuko du, edota, hala badagokio, kaltegarritasuneko deklarazioa egin ondoren aurkatze erabakia hartuko du administrazio prozedurak xedatutakoarekin bat. Erabakiak ez dira ofizios berraztertuko itzulketarako arrazoiak egonez gero.

14. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Diru laguntza jasotzeko, erakunde onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Diru laguntza emateko arrazoia izan den jarduera edo jardunbidea gauzatu zein konpromisoa hartzea.
- b) Jarduera gauzatu duela edo jardunbidea hartu duela eta laguntza eskuratzeko baldintzak eta betebeharrak bete dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezko baimenak eskuratzeko eta haietan agindutakoa bete-tzea.
- d) Indarrean dagoen legeriak dioenarekin bat, diru laguntza emaileak egindako kontrol jardueren edota finantza kontrolerako edota egiaztatze egindako jardueren esanetara jarri eta laguntza ematea, eskatutako informazio guztia helaraziz.
- e) Kontabilitateko liburuak, arretaz egindako erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezala ikuskatuak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken merkataritza eta sektore arloetako legeriak eskatutakoarekin bat. Era berean, egiaztapen eta kontrol lanak modu egokian egiten direla bermatzeko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriek eskatutako kontabilitate egoera-orriak eta erregistro espezifikokoak eskura izatea.
- f) Diru laguntza onuradunak laguntza zertan erabiltzen duen egiaztatze dokumentuak gorde beharko ditu, dokumentu elektronikokoak barne, eta lau urtetan Udalak noiz ikuskatuko zain gorde.
- g) Beste edozein administrazio edo erakundetatik (publiko nahiz pribatua, nazio mailako nahiz nazioartekoa) jasotako diru laguntzak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.
- h) Diru laguntza emateko kontuan izandako alderdi objektibo nahiz subjektiborik aldatu bada, horren berri ematea.
- i) Diru laguntzen emakiden gaineko erabakia hartu aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak betetzen dituela egiaztatzea.
- j) Jasotako diru kopurua itzultzea oinarrietan jasotako egoeraren bat gertatuz gero.
- k) Diruz lagundutako jarduera zabaltzeko ekintzetan garbi adierazi beharko da Donostiako Udalak edo haren erakunde autonomiadunek diru laguntza eman dutela.

l) Jarduera gauzatean pertsonaren oinarritzko eskubideak errespetatu beharko dira.

m) Onuradunak diruz lagundutako jarduerari dagozkion idazkiak, iragarkiak, jakinarazpenak eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta zabaldu beharko ditu, eta era berean jokatu du propagandari dagokionez, ahozkoa nahiz idatzia izan. Bestalde, ekitaldietan megafonia bidez ematen dituen mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko ditu. Diruz lagundutako jarduera gauzatu duela egiaztatzean, betebeharrak hau ere egiaztatu beharko du.

V. DIRU LAGUNTZAREN ORDAINKETA

15. artikulua.

Euskararen Udal Patronatuko Gobernu Kontseiluak diru laguntzen emakida-proposamena ontzat eman ondoren, interesatuei jakinaraziko zaie. Ordainketa era honetan egingo da, diru laguntza %70 diru laguntza emakida onartzen denean, eta gainerako %30a diru laguntza zuritzeko dokumentazioa aurkeztu eta -ontzat eman ondoren.

VI. DIRU LAGUNTZAREN ZURIKETA

16. artikulua. Zuriketa.

Diru laguntza jasotzen dutenek behar bezala egiaztatu beharko dute eskuratutako dirua laguntza xede diren eginkizunetarako erabili dutela.

17. artikulua. Dokumentazioa.

Diru laguntza zuritzeko dokumentazioa diru laguntza xede den egitasmoa amaitu eta bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da. Edonola ere, diru laguntza zuritzeko epea ezin izango da 2009ko uztailaren 30a baino gehiago luzatu. Honako dokumentazioa aurkeztuko da:

1. Diruz lagundutako jardueren berri ematen duen txostena; besteak beste, honako edukiak jaso beharko dira: Ezarritako xedea betetze aldera, zer noiz egin den, erabilitako baliabideak, onuradun kopurua, eragin esparrua, sortutako materiala, egitasmoaren eragina eta balorazioa.

2. Hala dagokionean, sortutako materialaren ale bana paperean edota euskarri elektronikoan.

3. Diruz lagundutako jardueren eragindako gastu eta sarreraren balantzea (xehekatua), euskaltegiko zuzendariak sinatuta eta dagokion zigiluarekin.

4. Egitasmoaren gastuen jatorritzko agiriak edo horien kopia konpultsatuak. Diruz lagundutako egitasmoaren gastu guztien justifikazioa egingo da. Diruz lagundutako egitasmoarekin lotura zuzena duten gastuak bakarrik hartuko dira kontuan.

5. Diru laguntza xede den jarduerari lotuta egin diren azterlan, programa, argitalpen, kartel eta gainerako dokumentu grafiko eta idatzien ale bana.

VII. DIRU LAGUNTZAK ITZULTZEA

18. artikulua. Itzultzea

1. Bidezkoa da hartzen diren kopuruak itzultzeko eskatzea eta laguntza edo diru laguntza ordaintzen den egunetik aurrerako atzerapen interesa eskatzea, honako egoeraren bat gertatuz gero:

a) Ez betetzea jasotzen diren fondoak zertan erabiltzen diren xedaturiko moduan eta epean egiaztatzekeo beharra.

b) Ez betetzea diru laguntza ematerakoan onuradunari izendatzen zaizkion baldintzak.

c) Ez betetzea laguntza edo diru laguntza ematerako oinarri den xedea.

d) Diru laguntza lortzea horretarako xedaturiko baldintzen jabe izan gabe.

e) 15. artikuluan aurreikusitako zabalkunde neurriak ez betetzea.

f) Organo eskudunen kontrol jarduerari aurka, uko edo oztopo egitea edota aitzakia jartzea. Era berean, laguntza zertarako erabili den, xedea bete ote den, diruz lagundutako jardueren egoeraren eta erregulartasunaren berri izateko edota jarduera berbererako beste diru laguntzekin lehiakidetasuna egiaztatzekeo argigarri izan daitezkeen kontabilitate eta erregistro betekizunak nahiz dokumentuak gordetzeko betebeharra ez betetzea.

g) Ematen diren laguntzen edo diru laguntzek zenbatekoak, bakarka edo nazioko zein atzerriko administrazio publikoek edo erakunde publiko nahiz pribatuak emandako laguntzekin batera, onuradunak egiten duen jardueraren kostua gaituz gero, gauzaten den ekintza benetako kostua gaituz duen hondarra itzuli beharko da. Bi herri administrazioen edota gehiagoren diru laguntzak bateratzen direnean, atal honek aipatzen duen gain-kostua gaituz bada, itzulketa haiek emandako diru kopuruaren hainbanaketa bidez egingo da.

h) Diru laguntza bakoitzaren berariazko araudian jasotako gainontzeko kasuetan.

2. Itzuli beharreko kopuruak eskubide publikoko sarrera gisa hartuko dira eta, berez, behartze bidez eska daitezke dirua hartarako xedaturiko epeetan itzuli ezean.

3. Kudeaketa, ikuskatze edo kontrol zereginak betetzerakoan ondorioztatzen bada hartzen den laguntza edo diru laguntza behar bezala lortzen edo erabiltzen ez delako zantzurik susmatuz gero, espedientean zantzu horien berri emango da eta behar beste zuhurtziazko neurriak hartu ahal izango dira.

19. artikulua. Dirua nola itzuli.

1. Diru laguntza ematen duen organoak berak izango du eskumena hartzen den zenbatekoa guztiz edo aldeztutzeko eskatzeko. Itzulketak eskatzeko edota kitatzeko administrazioak duen eskumena lau urtera indargabetzen da.

2. Diru laguntza itzultzeko jardunbideari bere kabuz ekingo zaio laguntza edo diru laguntza ematen duen organoak eskatuta, goragoko agindu batek eskatuta, beste organo batek modu funtsatuan eskatuta, gai horretan kontrolatzeko edo ikuskatzeko ahalmena duen beste ezein organok eskatuta, banakoren batek salatuta edo jakinarazita.

3. Jardunbidea izapidetzerakoan bermatu beharko da, nolana ere den, interesatuari entzuteko baimena.

4. Ematen den diru laguntza guztiz edo aldeztutzeko ez dela behar bezala erabiltzen egiaztatzen, organo eskudunak ziodun ebazpena emango du, argiro adierazita zergatik itzuli behar duen nahitaz onuradunak, - itzuli beharreko zenbatekoa eta horretarako epea eta modua, aipatuari ohartaraziko zaiola dirua xedaturiko epean itzuli ezean, behatze bideari ekingo diola Udalak.

5. Aurreko atalean adierazitako dirua itzultzeko erabakia jakinarazi ondoren, Finantza Zuzendaritzak izapidetuko du espedientea, eskubide publikoko diru sarrerarako aurreikusitako lege araudiei jarraiki.

6. Behartze bidezko prozedurari ekiten bazaio administrazio arauen bat urra dezakeen zer edo zergatik, horren jakitun jarriko da arauzko zigor prozedurari ekiteko.

7. Behartze bidezko prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazteko gehieneko epea hamabi hilabetekoa izango da, prozedurari ekitea erabaki den egunetik hasita. Aipatu epea igaro ondoren, berariazko erabakirik hartu ezean, prozeduraren iraungipena gertatuko da, amaitu bitarteko egin beharreko jarduerekin jarraitzea kalte gabe eta aipatu epea bitartean burutu diren jarduerengatik agindua geldiarazi dela kontsideratu gabe.

IX. ZIGOR ARAUBIDEA

20. artikulua. Zigorra.

Diru laguntzen alorren Administrazioako arau-hausteak joko dira Diru laguntzei buruzko 38/2003 Legean zehaztutako jarduerak nahiz ez betetzeak eta, arduragabekeria soil gisa ere, zigorgarriak izango dira.

21. artikulua. Zigortzeko jardunbidea.

Zigorra ezartzeko ahalmena izango du, ahalmenak eskuordetzan uzteko unean-unean indarrean dauden araudiaren eta egituraren arabera, horretarako eskumena bere gain duen organoak.

Zigortzeko jardunbidea administrazio prozedura eta herri administrazioen zigor ahalmena arautzen duten legezko eta arauzko xedapenen nahiz diru laguntza publikoen araudi erregulatuaren arabera izapidetuko da.

Arau hausteak lau urteren buruan indargabetuko dira, gertatu zen egunetik kontatzen hasita.

Ezarririk diruzko zehapenak dirua itzultzeko betebehartetik bereiziko dira eta kobratu ahal izateko eskubide publikoko diru sarrerarako aurreikusitako araubide juridikoa hartuko da kontuan

X. DIRU BALIABIDEAK

22. artikulua.

Deialdi honetan jasotzen diren laguntzetarako izendatutako diru kopurua 50.053 eurokoa da, eta gastua Euskararen Udal Patronatuko 2008ko aurrekontuaren 481.01.01 kontu sailari egotziko zaio.

23. artikulua.

Oinarri hauek interpretatzeko orduan zalantzarik sortuz gero, Euskararen Udal Patronatuaren Gobernu Kontseiluak argituko ditu.

XI. ARGITARA EMATEA

24. artikulua.

Emandako diru laguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrenda, bakoitzari emandako kopurua 3.000 euro

baino gutxiago bada, Patronatuaren web orrian eta iragarki taulan argitaratuko dira.

Bakoitzari emandako diru laguntzaren zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa bada Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

XII. ERREKURTSOAK

25. artikulua.

Honako oinarri hauen aurka administrazioarekiko errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, Euskararen Udal Patronatuaren Gobernu Kontseiluaren aurrean edo, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu; bietarako epea oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Donostia, 2008ko uztailaren 9a.—Eduarne Otamendi Garmendia, Patronatuaren Zuzendaria.

(126) (8115)